

VI. PAZKO IGANDEA (B)

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
hilen artetik piztu den gure Jauna goresteko
ospatzen ditugu egun pozgarri hauek;
egizu, oroigarri horietan aitortzen duguna,
beti geure egintzetan bete dezagula.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ap Eg 10, 25-26. 34-35. 44-48

*Jentilen gainera ere jaitsi zen
Espiritu Santuaren dohaina.*

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Pedro sartzera zihoala, Kornelio bidera atera zitzaion eta oinetaraino ahuspeztu. Pedrok altxarazi zuen eta esan zion: «Zuti zaitez; ni ere gizona naiz zu bezala». Pedro honela mintzatu zen: «Garbi ikusten ari naiz, Jaungoikoak ez duela bereizkeriarik egiten; baizik eta onartzen duela, Haren beldur dena eta zuzen dabilena, edozein herritakoa dela ere». Oraindik Pedro hizketan ari zela, Espiritu Santua jaitsi zen, hitza entzuten zeuden guztien gainera. Pedrokekin etorritako fededun erdainduak harriturik gelditu ziren, jentilen gainera ere Espiritu Santuaren dohaina jaisten ikusita, hizkuntza arrotzetan mintzatzen eta Jaungoikoa goratzen ari baitziren. Orduan esan zuen Pedrok: «Uka al diezaieke inork Bataioko ura, guk bezala Espiritu Santua hartu duten hauei?» Eta Jesu Kristoren izenean bataiatzeko agindu zuen. Eta gero haiek, egun batzutan berekin gelditzeko eskatu zioten.

ERANTZUN SALMOA: Sal 97, 1. 2-3ab. 3cd-4

**R/. Agertu du Jaunak atzerrien aurrean
Beragandiko garaipena.**

Edota: **Aleluia.**

Kanta Jaunari kantu berri,
egin baititu hainbat harrigarri.
Bere eskuinak eman dio garaipena,
bere beso santuak. R/.

Ezagutarazi du Jaunak Beragandiko garaipena,
agertu du atzerrien aurrean bere zuzentasuna.
On eta leial izan dela gogoratu du,
Israel etxeari buruz. R/.

Ikusi dute lur-muga denek,
gure Jainkoagandiko garaipena.
Lur osoa, egiozu txalo Jaunari,
egin oihu eta irrintzi, egin eresi. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Jn 4, 7-10

Jaungoikoa maitasuna da.

San Joan Apostoluaren epistolatik

Senide maiteok:
Maita dezagun elkar,
maitasuna Jaungoikoarengandik baitator,
eta maite duen guztia Jaungoikoarengandik jaioa da
eta ezagutzen du Jainkoa.
Maite ez duenak ez du ezagutzen Jainkoa,
Jaungoikoa maitasuna baita.

Jaungoikoak digun maitasuna honetan agertu zen:
Jaungoikoak bere Seme bakarra
bidali zuela lurrera,
gu Haren bidez bizi gaitezen.
Maitasuna badela, honetan agertzen zaigu:
ez guk Jainkoa maite izan dugulako,
baizik eta Hark gu maite izan gaituelako,
eta bere Semea
gure bekatuen bake opari bidali zuelako.

EBANJELIOA: Jn 15, 9-17

Aleluia: Jn 14, 23b

R/. Aleluia.
V/. Ni maite nauenak, beteko du nire hitza
—dio Jaunak—;
nire Aitak maiteko du,
eta harengana etorriko gara. R/.

*Ez da maitasun haundiagorik,
nork bere bizia bere adiskideengatik ematea baino.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: «Aitak Ni maitatu nauen bezala, hala maite izan zaituztet Nik. Zaudete nire maitasunean; nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean egongo zarete; Ni ere, Aitaren aginduak betetzen ditudalako, Haren maitasunean nagoen bezala. Hori esan dizuet, nire poza zuengan izan dadin; eta bete-betea izan dadin zuen poza. Hau da nire agindua: Maita dezazuela elkar, Nik maite izan zaituztedan bezala. Ez da maitasun

haundiagorik, nork bere bizia bere adiskideengatik ematea baino.

Zuek nire adiskide zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Orain ez dizuet gehiago morroi esaten, morroiak ez baitaki nagusiak zer egiten duen: adiskide esaten dizuet, Aitarengandik ikasi dudan guztia adierazi baitizuet zuei.

Ez nauzue zuek aukeratu Ni, baizik eta Nik aukeratu zaituztet zuek; eta ezarri zaituztet, joan zaitezten, eta fruitu eman dezazuen eta zuen fruituak iraun dezan; Aitari nire izenean eskatzen diozuen guztia, eman diezazuen.

Hau agintzen dizuet: Maita dezazuela elkar».

Oparigaien gainekoa

Atsegin bekizkizu, Jauna, gure otoitz eta eskaintzak;
zure errukiak garbi gaitzala,
zure maitasunaren sakramentuak hobeto ospa ditzagun.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Pazkoaldikoa.

Jaunartze ondorengoa

Jainko ahalguztiduna,
betiko bizirako sortu gaituzu Kristoren piztueran;
ugari itzazu guregan Pazko sakramentuen fruituak
eta isur gure bihotzetara janari salbagarri honen indarra.
Jesu Kristo.